


Azpian ageri den taulan gure zerbitzua publikora helarazteko erabiliko ditugun kanalak azaltzen dira, horien deskribapena emanez eta zertarako erabiliko ditugun azalduz.

KANALA	DESKRIBAPENA
<u>Webgunea</u>	Web orri bat ahalbidetzea hartzaindegiko zerbitzuak, ordutegiak eta politikak nabarmentzeko.
<u>Herritik publizitatea</u>	<p>El Correo aldizkarian, Deian, gaztea irratan, eitb-n, berria aldizkarian, galdakaoko udaleko webgunean, karteletan, berrietan.... agertzen saiatuko ginateke. Izan ere, egunkariaetan Osplay proiektua iragarriko da, herriko jendeak jakiteko eta behar dutenean erabiltzeko aukera dutela nabarmentzeko.</p> <p>Adibidez, Geuria hainbat herriri buruzko albisteak aurki daitezkeen egunkari bat da, besteak beste, Galdakaori buruzkoak. Egunkari honen bidez, herrian zehar publizitatea egin genezake, erreportai eta bestelako albisteetan gure burua ikusarazteko. Galdakaoko Peña Egunkariak beste aukera bat izango litzateke herriko komunitatean gure proiektua ezagutu dadin.</p>
<u>Sare sozialak: Instagram, facebook...</u>	Profil bat sortzea, bertan informazioa emanez.
<u>Kartelak eta liburuxkak</u>	<p>Zerbitzua martxan jarri baino lehen ospitaletik kartelak jarriko dira, pazienteentzat bideratuta. Zerbitzua bertan iragarriko dugu, bertakoek ikus dezaten. Kartelak eta liburuxkak supermerkatuetan, osasun-zentroetan, liburutegietan zein jolasguneetan jarri.</p> 
	Ospitaleko langileei alde zuzenean azalduko zaie zertan datzan Osplay proiektua eta haien haurrak apuntatzeko aukera izan dezaten. Batzarra txikiak antolatuko ditugu gure enpresa zertan

<p><u>Ospitaleko langileak</u></p>	<p>datzan ondo azaltzeko. Batzar hauek egiteko, langileen egutegietara egokituko gara, langileentzat ahalik eta erosoan izateko. Horretarako, gure zerbitzua martxan jarri baino lehen, jada prozesua aurrera eramaten ari garenean, bilera txiki bat antolatuko dugu langileekin, haurtzaindegiaren informazioa emanaz eta gmail-a edo sare sozialak eskeiniz edozein galderaren aurrean erantzuna jasotzeko, edota apuntatzeko. Bestalde, gmail bat bidaliko zitzaien azalpen batekin.</p> <p>Honetarako guztirako egokiena ospitalean lan egiten duten eta seme-alaba txikiak dituztenen datuak lortzea izango litzateke, haiekin kontaktuan jarri ahal izateko eta aurrez aurre zerbitzua eskeintzeko.</p>
<p><u>Ekitaldi komunitarioak</u></p>	<p>Herriko ekitaldi, azoketan parte hartu,. Liburuxkak edo bestelako sustapen-materialak banatuz.</p> <p>-Durangoko azokan parte hartu, stand bat izatea gure zerbitzuak eskeintzen, bonoak eginez....</p> <p>-Ikastaroak: hauetan parte hartu informatzeko</p> <p>-Hitzaldiak: kontziliazioaren inguruko hitzaldiak antolatzea, beste gurasoak kontzientziatzeko eta gure balioak zeintzuk diren ezagutarazteko.</p> <p>-Euskara sustatzeko ekitaldietan (ibilaldia, euskararen eguna...) presentzia izan</p>
<p><u>Ikastolen elkartearen parte diren eskoletako guraso taldeak</u></p>	<p>Gure haurtzaindegiari buruzko informazioa banatu, sor daitezkeen galderari erantzun,...</p> <p>Gainera, gure zerbitzuaren parte izan ezin direnek (momentuz, ez direlako langileak ezta ospitalean egunerokotasunean edo noizbehinka egoten) ikastolen elkartearekin akordioa edo hitzarmena aurrera badoa (haurren bat ingresatzen badute gure zerbitzura aldatuko dela jarraian, 24 h-ko zerbitzua eskaintzen dugula urgentziaren bat ematen bada...) hau ere azalduko diegu zerbait gertatuz gero aukera dutela jakiteko eta lasaitzeko.</p>